



KURSAAL

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Iragarkia, 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari buruzkoa.

Administrazio Kontseiluak, 2022ko abenduaren 14ko ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez emandako ahalmenak baliatuz, Zuzendari gerenteak 2022ko lan-eskaintza publikoa zabaltzea onartu du, honako lanpostu eta dotazio hau ek sartuta:

- Lanpostua: Komunikazio eta marketin-arduraduna (Lanaldi osoko kontratu mugagabea). Zuzkidurak: 1.
- Lanpostua: Negozio garapeneko edo prospekzioko arduraduna (Lanaldi osoko kontratu mugagabea). Zuzkidurak: 1.
- Lanpostua: Teknikari juridikoa (Lanaldi osoko kontratu mugagabea). Zuzkidurak: 1.

Lanpostu eta zuzkidura horiek 32/2021 Errege Lege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriaren berariazko birjarpen-tasari dagozkionak dira 2022ko ekitaldirako, eta Donostiako Udalak eskatu du baimena.

Jakinarazi da enplegu publikoaren eskaintza eraginkorra izateko, ministerio eskudunaren baimena lortu behar zela, eta, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren 2022ko abenduaren 27ko Ebazpenaren bidez, Donostiako Udalaren sektore publiko instituzionaleko berariazko berrezarpen-tasa baimendu dela.

Ministerioaren baimena lortu ondoren, 2022ko laneskaintza publiko arrunta (berrezarpen-tasa arrunta eta espezifikoa) gauzatzearen ondoriozko hautaketa prozesuetarako deialdia egingo da. www.kursaal.eus/eu/kursaal-kongresu-jauregia/gardentasunaren-ataria/enplegua/ webgunean argitaratuko dira horretarako prozesu horiek bete beharko dituzten baldintza orokorrak eta espezifikoak, eta aipatutako hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonen eskura egongo dira.

Donostia, 2022ko abenduaren 21a.—Iker Goikoetxea Mendoza, zuzendari gerentea.